

## BESTELAKO XEDAPENAK

### ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

## 2890

*AGINDUA, 2013ko ekainaren 14koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, Beasaingo udalerrian, 25 babes ofizialeko etxebizitza esleitzeko prozedurari hasiera ematen diona.*

### GERTAKARIAK

1.– Babes ofizialeko etxebizitza horiek esleitzeko prozedura Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Aginduaren bidez dago araututa, hala ezarrita baitago Babes publikoko etxebizitzen erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzko 2008ko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuaren 12. artikuluan (2012ko urriaren 15eko Agindua, Etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa).

2.– 2009ko urriaren 14ko Gipuzkoako Etxebizitza Lurralde Ordezkararen ebazpenaren bidez babes ofizialeko behin behineko kalifikazioa eskuratu zuen sustapen horrek. Sustapena Beasaingo Agauntza aldean kokatuta dago, Euskadiko Etxebizitza eta Lurra S.A., (Visesa) baltzu publikoak sustatzen du eta EB3-0730/09-LC-000 da bere espediente zenbakia. Etxebizitza horietako bat, 2 logelakoa, mugikortasun urri iraunkorra duten elbarriei egokitutakoa da. Gainontzeko 24 etxebizitzetatik, 1 logela bakarrekoa da, 21 bi logelakoak dira eta 2 hiru logelakoak dira. Etxebizitzak lagatzeko araubidea alokairua izango da.

### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.– Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuari dagokio agindu hau ematea, hala xedatuta baitago Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 48. artikuluan, Etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoan.

2.– Lehen eskualdatzeko babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko, bizikidetzaren unitatea osatuko duten titularretako batek gutxienez Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta egon beharko du, kasuan kasuko araudian ezarritako gutxienezko antzinatasuna duela, betiere Babes publikoko etxebizitzen erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzko 2008ko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuaren 18. artikuluan jasotzen denarekin bat etorritik.

3.– Babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko eskatuko diren urteko diru-sarreraren haztatuen mugak Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2011ko irailaren 14ko Aginduan ezarritakoak izango dira.

4.– 39/2008 Dekretuaren 22. artikuluan jasotzen denaren arabera, diru-sarrerari dagokienez kontuan hartu beharreko epealdia honako hau izango da: esleipen-prozedurari hasiera ematen dion aginduaren argitalpen-dataren aurreko zergaldia; betiere, amaituta egon behar du zergaldi horri dagokion aitorpena egiteko epeak, hau da, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpena egitekoak.

5.– Lehenago aipaturiko 2012ko urriaren 15eko Aginduak ezartzen duenez, pertsonak edo bizikidetzaren unitateak, babes ofizialeko etxebizitzaren esleipen-prozeduretan parte hartzeko,

Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan inskribatuta egon beharko dute. Baldintza hori betez gero, parte hartzea izango dute Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan inskribatzeko eskaeran adierazitako udalerrietan zein horien eremu funtzionaletan egindako esleitze-prozeduretan, non eta hori eragozten duen arau- edo hitzarmen-xedapenik ematen ez den.

Alokairu-araubidean egokitutako etxebizitza bat eskatzen duten mugikortasun mugatuko desgaituek aukera izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan egindako esleitze-prozeduretan parte hartzeko.

6.– Agindu horretan bertan zehazten denez, prozeduran parte hartzea borondatezko izango da, eta prozedurari hasiera emateko aginduan finkatutako epean eta bitartekoaren bidez egin beharko da. Halaber, prozeduran sartzen direnek beren bizikidetzaren unitatearen premietarako egokia ez den etxebizitza bat eskuratzeko interesa ere adierazi ahal izango dute, betiere horrek gainokupazioa eragiten ez badu. Egokitutako etxebizitza bat eskuratzeko interesa ere adierazi ahal izango dute, era horretako etxebizitzak esleitu gabe geldituz gero.

Kasu horretan, epea 15 egun naturalekoa izango da.

7.– 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 50. artikuluari jarraituz, etxebizitzak, esleitzeko prozeduran sartutako pertsonak edo bizikidetzaren unitateek lortutako puntuazio-ordenari jarraituta esleitu dira, betiere agindu bereko 51. artikuluan xedatutako baremoa aplikaturik.

Horrenbestez, aipatutako legezko manuak, horiekin bat datozenak eta aplikatu beharreko gainerakoak ikusita, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Beasaingo udalerrian 25 babes ofizialeko etxebizitza esleitzeko prozedurari hasiera ematea. Udalerrri hori Beasain-Zumarraga eremu funtzionalean dago.

Bigarrena.– Sustapen honetako etxebizitzak lagatzeko araubidea alokairua izango da.

Hirugarrena.– Esleipen prozeduran honako pertsona edo bizikidetzaren unitate hauek parte hartu ahal izango dute: agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan alokairu-araubidean izena emanda daudenek, betiere hurrengo paragrafoetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Laugarrena.– Izena emateko eskabidean aukeratutako udalerrietako bat Beasain izan beharko da.

Bosgarrena.– Etxebizitzaren titular izango direnetako batek Beasainen errolatuta egon beharko du, prozedurari hasiera emateko agindu hau argitaratzen den egunean.

Seigarrena.– Egiaztatu beharko da 2011. urteko zergaldiko diru-sarrera haztatuak ez direla 3.000 euro baino txikiagoak, ez eta 39.000 euro baino handiagoak ere. Mugikortasun mugatua edo desgaitasun psikikoa izanez gero, ez da eskatuko gutxieneko diru-sarrerarik egiaztatzea.

Zazpigarrena.– Aipatutako baldintzak betetzen dituzten pertsonak edo bizikidetzaren unitateek sustapen honetako esleipen-prozeduran parte hartu nahi badute, dagokion inprimakia aurkeztu beharko dute Gipuzkoako Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzan, 2013ko irailaren 30etik urriaren 14ra bitartean (biak barne).

Zortzigarrena.– Sustapeneko etxebizitzetatik 1 mugikortasun mugatu iraunkorra duten pertsonentzat egokituta dago. Etxebizitza hori bi logelakoa da. Etxebizitza hori, hasiera

batean, mugikortasun mugatu iraunkorra duen pertsona bat duten bizikidetzaren unitateen artean esleituko da.

Etxebizitza hori hurrenkera honi jarraituz esleituko da: lehenik eta behin, egokitutako etxebizitzak gurpil-aulkian dauden pertsonari esleituko zaizkie; gero, bi makulu nahitaez erabili beharra duten pertsonari; eta, azkenik, 1971/1999 Errege Dekretuaren 3. eranskinaren D) eta H) bitarteko paragrafoekin lotuta 7 puntu edo gehiago dituztenei.

Esleitu gabe geratzen diren etxebizitza egokituak, halakorik baldin bada, mugikortasun mugatu iraunkorra duen pertsonarik ez duten bizikidetzaren unitateen artean esleituko dira, baldin eta egokitutako etxebizitza bat eskuratzeko interesa adierazia badute.

Bederatzigarrena.– Egokitu gabeko 24 etxebizitzetatik, 1 logela bakarrekoa da, 21 etxebizitza bi logelakoak dira eta 2 etxebizitza hiru logelakoak.

Hamargarrena.– Esleitzeko prozeduran sartutako pertsonak edo bizikidetzaren unitateek lortutako puntuazio-ordenari jarraituta esleituko dira etxebizitzak, 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 50. artikuluan jasotzen denaren arabera, betiere Agindu bereko 51. artikuluan xedatutako baremoa aplikaturik. Artikulu horretan jasotzen diren barematzeko irizpideak, lehentasun-ordenaren arabera, honako hauek dira:

a) Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroko alokairu-araubideko inskripzioaren antzintasuna: 5 puntu emango dira antzintasunik handiena duen bizikidetzaren unitateko kidearen alokairu-araubideko inskripzio-urte bakoitzeko. Gehienez 40 puntu 8 urte edo gehiagoko antzintasuna duten eskaerentzat, eta gutxienez 5 gutxienez urtebete eta gehienez bi urteko antzintasuna duten eskaerentzat.

b) Bizikidetzaren unitateko kide kopurua: Bizikidetzaren unitateko kide bakoitzeko 5 puntu emango dira; horretarako, hauek baino ez dira kontuan hartuko: titularrak, horien seme-alabak eta etxean erroldatuta dauden edo bisita-araubidea judizialki onartuta duten horien legezko tutoretzapeko edo familia-harrerapeko pertsonak. Gehienez 30 puntu 6 kide baino gehiagoko eskaerentzat eta gutxienez 5 puntu kide bakarrekoko eskaerentzat.

c) Diru-sarrerak: gehienez 20 puntu emango zaizkie 3.000 eta 9.000 euro bitarteko diru-sarrerak dituzten eskatzaileei, 15 puntu 9.001 eta 15.000 euro bitartekoak dituztenei, 10 puntu 15.001 eta 25.000 euro bitartekoei eta gutxienez 5 puntu 25.001 eta 30.000 euro bitartekoei.

d) Erroldatzea: 10 puntu emango zaizkie sustapenaren udalerrian erroldaturiko titular bat gutxienez duten espedienteei eta 5 puntu horren eremu funtzionalean erroldaturiko titular bat gutxienez duten espedienteei.

e) Etxebizitza-premia berezia: 10 puntu emango zaizkio etxebizitza-premia bereziko kolektiboren bateko titularraren bat duten espedienteei. Adimen- eta garapen-desgaitasuna edo gaixotasun mentala duten pertsonari dagokienez, 10 puntu emango zaizkie hori egiazta dezakeen bizikidetzaren unitateko kideren bat duten espedienteei. Kolektibo bateko kide direnei 10 puntu emango zaizkie horietako bakoitzeko, gehienez 30.

Eskaerak Etxebizitza Eskatzaile Erregistroan alokairu-araubidean sartzeko dataren bidez hautsiko dira berdinketak.

Hamaikagarrena.– Onartutakoan eta baztertutakoan zerrendak, etxebizitza-esleipenak eta itzarote-zerrendak honako toki hauetan argitaratuko dira: Zuzenean-Eusko Jaurlaritzaren

Herritarrentzako Zerbitzuaren iragarki-oholetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-ohol elektronikoan.

Agindu honen aurka, berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioko Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuari, hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, zuzenean, bi hilabeteko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan. Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasiko da errekurtso biak aurkezteko epea.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko ekainaren 14a.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua,  
JUAN MARÍA ABURTO RIQUE.